



IRIZPEN ZK.: D20-006

BI GURASOETAKO BATEK ADINGABEKO BATEN GIZARTE-ZERBITZUETAKO ESPEDIENTE BAT ESKURATZEARI BURUZKO IRIZPENA

AURREKARIAK

LEHENENGOA: [...]e)ko Udalak goiburuan azaldutako gaiari buruzko irizpena eskatu dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari. Eskari-idazkiak honako hau dio:

«Udal gizarte-zerbitzuak adingabe bati buruzko espedientea izapidetzen ari dira. Adingabe horren gurasoak bananduta daude, eta gaur egun elkarrekin banatutako zaintza eta jagoletza eta guraso-ahala dituzte. Espediente horretan gizarte-zerbitzuen nahiz udaltzaingoaren txosten eta jarduketa batzuk agertzen dira. Agiri horietako batzuk gurasoetako bakar bati buruzkoak dira (poliziaren txostenak), beste agiri batzuetan gurasoak modu partzialean agertzen dira. Beste gurasoak eskatzen du adingabeari buruzko espedientearen kopia eman dakiola (ahoz azaldu digutenez, adingabeari dagokionez neurriak aldatzeko eskatu nahi da). Datuak babesteko indarrean dagoen araudiaren arabera, espedientea osorik eman ahal diogu? Beste gurasoari buruzko zatia eman behar ez badiogu, agiri horiek aipatzen dituzten txostenetan eragotzi behar al da alde horrek txostenak eskura ditzala?».

BIGARRENA: Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoaren 17.1 artikuluko n) apartatuak honako eginkizun hau esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

«Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkieten galderei erantzutea».

Beraz, araudia kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko irizpena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Datu pertsonalak babesteari buruz gaur egun honako lege hauek daude indarrean: bata da 2018ko maiatzaren 25az geroztik indarrean dagoen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena (Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra); eta bestea da Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide



Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, 2018ko abenduaren 7az geroztik indarrean.

Era berean, horiez gain, otsailaren 25eko 2/2004 Legea, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa ezarri behar da Euskal Autonomia Erkidegoan, baita lege hori garatzeko araudia ere, aurreko beste arau horiek xedatutakoarekin kontraesanean ez badago.

II

Datuak Babesteko Euskal Bulegoari galdetzen zaio ea gurasoetako batek egindako eskaria, udaleko gizarte-zerbitzuek bere seme adingabeari buruz izapidetzen duten espedientearen kopia erreklamatzekoa –deklaritzen denez, adingabearen inguruko neurriak aldatzea xede dela–, bat datorren ala ez datu pertsonalen babeserako funtsezko eskubidearekin.

Udalak bere kontsultan azaltzen duenez, adingabearen gurasoak bananduta daude, baina biek guraso-ahala daukate eta adingabearen zaintza eta jagoletza konpartitzen dituzte, eta galdetzen du ea espediente osoaren kopia jarri ahal duen eskaria egin duen gurasoaren eskura, espediente horretan beste gurasoari soilik dagokion informazioa jasotzen dela kontuan hartuta.

Lehenengoz, honako hau esan behar da: datuen tratamendu orotan funtsezko printzipioetako bat zilegitasun-printzipioa da (Erregelamendu Orokorraren 5.1 a) artikulua). Printzipio horren arabera, datu pertsonalen tratamendu orok legitimatuta egon behar du, hau da, oinarri juridiko bat egon behar da. Oinarri legitimo horiek Erregelamendu Orokorraren 6.1 artikuluan arautzen dira, besteak beste interesdunaren adostasuna (1 a apartatua), lege-eginbehar bat betetzea (1 c apartatua), edo interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat (1 e apartatua). Halaber, datuak tratatu ahalko dira baldin eta tratamendua beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunak edo hirugarren batek bilatzen dituen interes legitimoei erantzuteko, non eta interes horien gainean ez dauden datu pertsonalen babesa eskatzen duten interesdunaren interesak edo oinarrizko eskubide eta askatasunak, bereziki interesduna haur bat denean (Erregelamendu Orokorraren 6.1 f) artikulua).

Hala ere, gauza bat nabarmendu behar da: Erregelamendu Orokorra araubide zorrotzagoa jasotzen du datu-kategoria berezien tratamendurako (pertsona fisiko baten arraza edo jatorri etniko, iritzi politiko, pentsamolde erlijioso zein filosofiko edo sindikatu-bazkidetzari buruzko informazioa ematen duten datu pertsonalak, datu genetikoak, datu biometrikoak, pertsona fisiko baten osasunari zein bizitza sexualari edo sexu-orientazioari buruzko datuak); alde horretatik, arau orokorra da debekatuta dagoela halako datuak tratatzea, eta manuaren 2. apartatuan debeku horrek dituen salbuespenak xedatzen ditu.

Galderaren xede den kasuan, ez dago jakiterik udalak azaltzen duen espedientearen zein motatakoa den, ezta babes bereziko kategoria duen informazioa biltzen duen ala ez, baina badakigu gizarte-zerbitzuen arloan izapidetzen ari dela, adingabe bati buruzkoa dela, eta espediente horretan adingabe horri buruzko informazioa ez ezik gurasoei buruzkoa ere agertzen dela.



Hori guztia abiapuntu hartuta, hasteko zera esan dezakegu: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak onartu egiten du interesdunek eskubidea dutela beren datu pertsonalak irispidean izateko, 15. artikulua dioenez.

Hala ere, interesdunak (datuen titularrak) bere buruari buruzko informazioa irispidean izateko duen eskubide hori ez da absolutua, Erregelamendu Orokorren 23. artikuluan jasotzen diren mugen mende dagoelako; muga horietako bat da, besteak beste, «interesdunaren babesa edo beste batzuen eskubide eta askatasunena» (Erregelamendu Orokorren 23.1i) artikulua).

Manu horri jaramon eginez gero, udalak legitimitatea izango luke eskatzailearen esku uzteko hari buruzko informazioa, udalak seme adingabearen espedientean tratatutakoa, salbu eta eskubide hori mugatzeko kausaren bat gertatuko balitz, hau da, adingabea berea babestu beharko balitz.

Seme adingabeari buruzko informazioa irispidean izateari dagokionez, kontuan hartu behar da Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko Lege Organikoaren 12.1 artikulua bidea ematen duela irispiderako eskubidea zuzenean edo legezko edo borondatezko ordezkari baten bitartez egikaritzeko. Gainera, Lege horren beraren 12. artikulua horretan, 6. apartatuak honako hau ezartzen du:

«Nolanahi ere, guraso-ahalaren titularrek, hamalau urtetik beherako adingabeen izenean eta haien ordezkari, egikaritu ahalko dituzte datuetarako irispiderako eskubidea, datuak zuzentzeko, ezerezteko, tratamenduaren aurka egiteko, bai eta lege organiko honen testuinguruan egokitu ahal zaien beste edozein eskubide ere».

Kasu honetan adingabearen adina ez da zehazten, baina eskaria egiten duen gurasoak guraso-ahala daukala eta gainera zaintza eta jagoletza konpartitzen duela zehazten da. Beraz, adingabeak hamalau urte baino gutxiago baditu, guraso-ahalaren titulartasuna daukaten gurasoek espedientean adingabeari buruz agertzen diren datuetara irispidean izateko eskubidea egikaritu ahalko dute adingabearen ordezkari gisa, salbu eta irispidean izateko eskubidea mugatzeko arrazoiren bat badago, adibidez adingabea bera babestu beharra.

Horren haritik, nabarmendu behar da Kode Zibilaren 154. artikulua guraso-ahala arautzen duela. Gurasoen erantzukizuna den aldetik, guraso-ahala beti egikaritu behar da seme-alaben onurarako, euren nortasunarekin bat etorritik eta euren osotasun fisiko eta psikologikoa errespetatuz. Gainera, 154. artikulua xedatzen duenez, zeregin horrek barnean hartzen ditu seme-alabak jagotea, eurokin izatea, horiei mantenua ematea, seme-alabok heztea eta, horrez gain, seme-alaba horiek ordezkatzeko eta euren ondasunak administratzea.

Bestalde, Kode Zibilaren 156. artikulua ezartzen duenez, guraso-ahala bi gurasoek batera egikaritzen dute; horrek esan nahi du seme-alabei buruzko erabaki garrantzitsuak elkarren arteko adostasunez hartu behar direla. Desadostasuna izanez gero, epaileak ebatzi beharko du Kode Zibilaren 156. artikuluan bertan ezarritako dagoen izapidearen arabera. Manu horrek gurasoak banandurik bizi direnean guraso-ahala egikaritzeko modua ere arautzen du, eta honako hau xedatzen du: «*Gurasoak banandurik bizi badira, semearekin edo alabarekin bizi den gurasoak egikaritzeko du guraso-ahala. Dena den, beste ezkontideak eskaera oinarrituta egiten badu, epaileak horri erantzun diezaioke guraso-ahala, semearen*



edo alabaren intereserako, guraso horrek bestearekin batera ahal hori egikari dezan; edo, bestela, epaileak aitaren eta amaren artean bana ditzake guraso-ahalaren egikaritzari datxetzion eginkizunak».

Aztergai dugun kasura itzuliz, udalak azaldu duenez, gurasoak banandurik daude eta biek dute adingabearen guraso-ahala, baita zaintza eta jagoletza konpartitua ere.

Auzitegi Gorenak hainbat aldiz adierazi duenez, Auzitegi Gorenaren 2018ko apirilaren 24ko Epaian, guztien erakusgarri, «*Elkarrekin banatutako zaintzak berekin dakarren premisa da gurasoen artean elkarrenganako errespetuzko harremana egoteko premia; harreman horrek bidea emango du jarrera eta jokabide batzuk hartzeko, halakoak non adingabeari on egingo zaion eta bere garapen emozionala kaltetuko ez den; orobat, nahiz eta gurasoen harremana eten, erreferentziazko familia-esparru batek iraun egingo du, bere nortasunaren hazkunde harmoniatsuaren oinarri (619/2014 epaia, urriaren 30ekoa; 242/2016 epaia, apirilaren 12koa; 529/2017 epaia, irailaren 27koa; 579/2017 epaia, urriaren 25ekoa). Hala ere, hori ez da oztopo ezkontzaren krisi-egoeraren berezko desadostasunak berez zaintza eta jagoletzaren araubide hori ez baimentzeko arrazoi izan daitezzen, salbu eta adingabeei kalte nabarmena eragiten badiote. Gurasoen arteko egoera korapilatsua kontuan hartuta elkarrekin banatutako zaintza eta jagoletzaren araubidea ez aukeratzea komenigarria izango da baldin eta egoera hori ezkontzaren krisi-egoera arrunt batetik gorako mailan badago (566/2014 epaia, urriaren 16koa; 422/2016 epaia, ekainaren 27koa, 409/2015 epaia, uztailaren 17koa)».*

Era berean, seme-alaben gaineko guraso-ahala egikaritzeak haien legezko ordezkariak ere egikaritzea dakar. Hala ere, Kode Zibilaren 162. artikulua arabera, seme-alaben legezko ordezkariak hainbat egintza salbuetsita daude, besteak beste nortasun-eskubideen inguruko egintzak, semeak edo alabak duen heldutasunaren arabera, seme edo alaba horrek bere kabuz buru ditzakeenak (162.1 artikulua) eta, halaber, gurasoen eta seme-alaben arteko interes-gatazka eragiten duten egintzak (162.2 artikulua).

Lehenago esan dugunez, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko Lege Organikoaren 12. artikulua bidea ematen die guraso-ahalaren titularrei datuetarako irispidea egikaritzeko, 14 urtetik beherako seme-alaben izenean.

Nolanahi ere, gurasoen eta seme-alaben artean interes-gatazkarik badago, Kode Zibilaren arabera gurasoek ez dute izango seme-alaben legezko ordezkariak. Are gehiago, Kode Zibilaren 163. artikulua arabera, gai zehatz baten inguruan aita eta amaren interesa euren seme-alaba emantzipatugabeek dutenaren aurkakoa bada, epaileak seme-alaba horientzat defendatzailea izendatuko du, defendatzaile horrek epaiketan nahiz epaiketatik kanpo seme-alabok ordezkariak ditzan, eta interes-gatazka guraso batekin bakarrik sortzen bada, lege-aginduz beste gurasoari dagokio adingabea ordezkari edo beraren gaitasuna osatzea, eta horretarako ez da izendapen berezirik behar.

Laburbilduta, gurasoek udal espedientean beren buruari buruz eta beren seme adingabeari buruz agertu ahal den informaziorako irispidea izango dute, Kode Zibilak ematen dien legezko ordezkariarako ahalmenaren arabera, baldin eta haien eta seme-alabaren artean interes-gatazkarik ez badago, eta halakorik egonez gero, irispiderako eskubide hori ere mugatu beharko da.



Kasu honetan, gure abiapuntua da izapidetutako espedienteak adingabe bati eragiten diola, eta adingabe horientzat berme-araubide berezia dagoela, nazioartean nahiz barneko ordenamendu juridikoan.

Nazioartean, Haurren Eskubideen gaineko Konbentzioak 3. artikuluko 1. paragrafoan dioenez, «*Haurrei dagokienez, gizarte-ongizateko erakunde publiko nahiz pribatuek, auzitegiek, administrazio-agintariek edo legegintza-organoek hartzen dituzten neurri guztiek haurren interes gorena zaintzea izango dute lehendabiziko ardura*».

Xedapen hori barneko zuzenbidean behar bezala agertzen da, zehazki 1/1996 Legean, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoan; Lege horren 2. artikulua honako hau agintzen du:

«1. Adingabeek beren interes gorena baloratu eta hura funtsezkotzat har dadila eskatu ahal izango dute berei dagozkien akzio eta erabaki guztietan, eremu publikoan nahiz pribatuan. Lege hau eta berari eragiten dioten gainerako arauak aplikatzen direnean, eta erakunde publiko nahiz pribatuek, epaitegiek edo organo legegileek hartzen dituzten adingabeekin lotutako neurriak aplikatzen direnean, haien interes gorenari emango zaio lehentasuna, egon daitezkeen bestelako interes legitimoen gainetik».

Haurren interes gorenaren kontzeptu juridiko hori Nazio Batuetako Haurren Eskubideen Batzordeak garatu du «*14. oharrean (2013), interes gorena lehentasunezkotzat jotzeko haurren eskubideari buruzkoan*». Agiri horrek dioenez, haurren interes gorenaren kontzeptu horren helburua da Konbentzioan aitortutako eskubide guztiak erabat eta benetan baliatuko direla bermatzea eta ume bakoitzaren garapen holistikoa bermatzea. Batzordearen iritziz, haurren interes gorena kontzeptu hirukoitza da:

1. Batetik, eskubide substantibo bat da, dioena adingabeen interes gorenak lehentasuna izango duela eztabaidatzen den gaiari buruzko erabakia hartzeko orduan tartean dauden interesak aztertzen direnean.
2. Bestetik, funtsezko printzipio juridiko interpretagarri bat da, dioena xedapen juridiko batek interpretazio bat baino gehiago badauzka, beti aukeratu beharko dela haurren interes gorena ondoen asebetetzen duena.
3. Hirugarrenik, prozedura arau bat ere bada: haur edo haur talde jakin baten edo oro har haurren gaineko erabakiren bat hartu behar denean, erabakia hartzeko prozeduran jaso beharko da erabakiak haurren edo haurrangan izango dituen ustezko ondorio positibo edo negatiboen gaineko balioespen bat. Haurren interes gorena balioesteko eta finkatzeko, berme prozesal bereziak behar dira, eta, gainera, hartzen diren erabakien oinarrian dauden arrazoiek argi adierazi behar dute berariaz hartu dela kontuan eskubidea.

Batzordearen agiriak lotu egiten ditu haurren interes gorena eta haurren zaintza, babesa eta segurtasuna, esaten duenean haurren interes gorenak haurren segurtasuna ere hartu behar duela kontuan; hau da, kontuan hartu behar duela haurrak eskubidea duela babestuta egoteko kalte edo abusu fisiko nahiz mental ororen aurrean, sexu jazarpenaren aurrean, beste haurren presioaren aurrean, larderiaren eta tratu iraingarrien aurrean, eta abar.

Erabakiak hartzeko prozesuaren baitan haurren interes gorenaren ikuspegia txertatzen bada, horrek esan nahi du une horretako haurren segurtasuna eta integritatea ere aztertu



direla. Baina, zuhurtzia-printzipioak agintzen du etorkizunean egon daitezkeen arriskuak eta ondorioak ere aztertzea, eta erabakiak haurren segurtasunean izan ditzakeen ondorioak ere bai.

Era berean, oso interesgarria da Batzordeak egindako gogoeta esanez haurren interes gorenaren kontzeptua konplexua dela eta bere edukia kasuz kasu zehaztu behar dela. Batzordeak dioenez, legegileek, epaileek edo administrazio, gizarte edo hezkuntza agintaritzek kontzeptua argitu eta praktikan jar dezakete, ahalik eta modurik zehatzenean ezarrita 3. artikuluko 1. paragrafoan jasotakoa, eta kontuan hartuta Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioko gainontzeko xedapenak.

Haurren interes gorena urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren, Kode Zibila eta Prozedura Zibileko Legea zati batean aldatzeko eta Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoaren 22 quater artikuluan ere jasota dago.

Legezko manu hori datu pertsonalak babesteari buruzkoa da, eta 3. apartatuan argi eta garbi honako hau dio: administrazio publikoek bildutako datuak bakar-bakarrik erabili ahal izango dira lege horretan ezarritako babes neurriak hartzeko, *«adingabearen interes gorena kontuan hartuta eta dagozkion ebazpenak hartu behar dituzten administrazio publikoei, Ministerio Fiskalari eta organo judizialei baino ezingo zaizkie jakinarazi»*.

Azkenik, Umeak eta Nerabeak Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legea aipatu behar da. Lege horren 6. artikulua erreserba-betebeharra azpimarratzen du, xedatzen duelako organismo, entitate eta erakunde publiko nahiz pribatuek erreserbaz jokatu beharko dutela umeak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko esparruan, eta hartu behar diren neurriak hartuko dituztela, konfidentzialtasunarekin tratatzeko intimitaterako eskubidea, esku artean duten informazioa, eta informazioa jasotzen duten fitxategiak edo artxiboak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoan xedatutakoaren arabera. Lege-testu horrek berak 48 a) artikuluan administrazio-jardunaren printzipio eta irizpide gidarien artean jaso du errespetatu egingo dela jarduketa guztietan haur eta nerabeen interes gorenak eta haien eskubideen babesak, eta eskubide horien garapenaren bermeak beste edozein interes bidezkoen gainetik duten lehentasuna.

Laburbilduta, adingabearen interes gorenaren printzipioa bete behar du udalak, adingabe horrekin lotuta egiten duten jarduketa guztietan, eta printzipio hori nahitaez kontuan hartu beharko da harekin lotutako espedientean agertzen den informazioaren tratamenduan.

Konstituzio Auzitegiak dioenez (guztien erakusgarri maiatzaren 24ko 134/1999 KAE, eta ekainaren 11ko 387/2012 KAE) eztabaidaezina da adingabeek interes legitimoa dutela, besteen ekintzaren eta ezagutzaren aurrean, beren bizitza pertsonalaren edo familia-bizitzaren datuak agerian jar ez daitezzen.

Jurisprudentzia-ildo horretatik jarraituz, orain aipatu dugun araudiak eskatzen du adingabeen intimitatea zorrotz errespetatu dadila babes-sistemak egindako jarduketetan, zeinetan konfidentzialtasunez eta erreserbaz jokatu behar baita.

Eta horrek berriro ere eramaten gaitu egindako galderara; hain zuzen ere, planteatzen da ea eskaria egin duen gurasoari semearen espedientean dagoen informazioa eman ahal dioten, soil-soilik beste gurasoari buruzkoa izanik. Gure iritziz, eskatzaileak ez du jarduten hirugarren interesdun gisa, baizik eta adingabearen beraren intereserako, haren izenean,



haren guraso-ahalaren titular gisa, eta soil-soilik guraso-ahal horretatik eratorritako eginbeharrak betetzeko, betiere adingabearen intereserako.

Interes hori betiere beste edozein interes legezkoren gainera egongo da, adibidez ukituak espedientean bere datuak agertzen direla-eta datu horien pribatutasuna gordetzeko duen interesaren gainera, baina interes goren hori babestu beharra gorabehera, udalak ez du inola ere legitimitaterik izango espedientean agertzen diren agiri guztiak eskatzailearen irispidean jartzeko, baldin eta agiri horiek garrantzirik gabeak badira adingabearen babesaren xede legitimo horretarako.

Laburbilduta, adingabearen espedientean beste gurasoari buruz agertzen den informazio pertsonalerako irispidea izatea justifikatuta egongo da baldin eta adingabearen interes gorena xede bada. Hala izan ezean, informazio horretarako irispidea mugatu beharko da. Nolanahi ere, udalari dagokio gurasoak egindako eskaria ebatzea; horretarako, kasuaren inguruabar zehatzak aztertu beharko ditu, adingabearen interes gorena kontuan hartuta, interes horrek aipa daitekeen beste edozein eskubideren gainera egon behar duelako.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 4a